

• DE LHEKE TA : Aste hantako solas bidea.

- 1 - Lizazte nintz da?
- 2 - Naintzatarraren Boryel?
- 3 - Boryel gerzen?

(II) UDAKO OIHARTZUNAK \*

Erraiten ohi dute idazti pollitenak eta sarkorrenak direla bihotzetik atheratzen zaizkigunak; ez adimendutik eta burutik zentzuz eta zuhurki agerrazten ditugunak.

Hauk baditake funtsekoak izan ditezken bainan bihotzetikakoek ere badute halako litura zerbait, eta barnerat helten zaizkigu gure izaitearen zolaraino, arimaren baitatik sortiak direlarik.

Nik errainditutuak gauza xumeak<sup>1</sup> litzke, bainan utz dezagun bihotza mintzatzerat.

Behin, egun batez, Luzaiden nintzalafik, yuan den Agorrilan, ethorri zen mendiz-mendi eta luñez ni nindagon etxerat Baigorri-ko Belexi hauzoko gizon kankail<sup>2</sup> bat, adin-ka eta meharra. Etxekoanderiaren ahaidea zen eta han bazdu zuen.

Aphairuan, yaki puska batez ahoa koka ahala betia zielarik galdegin nakon hea noibait aditu othe zien Boryel phertsulariaren izena, Luzaideko seme aipatua<sup>3</sup>. Izen hori entzun eta bat-batian, ahamena zaluki iretsirik, begiak phiztu zitzaiak.

Gizona! (erraiten daat), nekez, arras nekez holako phertsularirik khausi ahal diteke Eskual-herrian. Baigorrin eta Alduden, Garazin ala Amikuzen, Baxenabarre osoan, ba eta ere Laphurdin eta Xuberon biziki ezagutia zen. Nok ez dazi haren phertsuak?

Eta berehala arno hurrupa batekin zintzurra garbiturik hasten zait Boryel-en kopla cderrenak ozenki kantatzen. Eta nola!

Ni loriatu nindagon hari entzutean, zer amodio eta ez-titasunarekin atheratzen zaizkion bihotzetik phertsu pollitzen, eskualdun menditar hutsek ezin erranezko aireaz erraidituztenarekin.

Ori, yauna, ihardesten du; ene herrian, Baigorrin, hauzo eta bazterretxetan, zahar ala gazteak igande arrasetan aditu-ko dituzu Boryel-en kopiak, irrintzinez landa.

Irakurleak: erdaldun eskualde hautan ez dakizie zer heineraino menditarren barneak inharrosten ditien phertsulariak. Eskualduna ez ditake eskualdun izan ez balu phertsulantzat dien amodio suharra, eta ez balazki gogoz haren phertsu aipatuenak, bihotzetikako oinhazetan ala bozkariozko egunetan bere barneari mintzarazteko.

Zer omen eta aiphu haundikoak diren hiru izen hauk mendiez bertze aldekoen artean! Boryel, Baxenabartarra (Luzaidekoa); Otxalde Laphurtarra, eta Etxahun, Xuberotarra, Barkotxekoa. Izen iraunkorrik, ahoz-aho dabilzanak, phesta eta bazkhari ondoetan, herrien bozkariotan, hain aspaldikoak izanikane ere.

Bertze egun batez mintzatu beharra niz Boryel-ez, ene tar haundiaz, hemengoet ezagutarazteko nor eta nolak zen.

(III) ADITZ IKASKUNTZA

31. Atheratzen zaizkigunak<sup>32</sup> - jan ditegile

33. Luzaiden nintzalarrak 34 Ni nindagon

31. IZAN. Régime indirect. Indic. Présent.

Hek dire (ils sont)

Hek(eux) Zaixkit(à moi) = ils me sont

Zaizkizu(à vous) = ils vous sont

Zaizkio (à lui) = ils lui sont

Zaizkigu (à nous) = ils nous sont

Zaizkizue(à vous) = ils vous sont

Zaizkiele (à eux) = ils leur sont

32. IZAN Potentiel présent

Ni ijan maiteke = Je peux être

Hi " haitzke = tu peux être

Zu " zaitezke = vous pouvez être

Hura " daitezke = il peut être

Gru " gaitezke = nous pouvons être

Zuek " zaitezketé = vous pouvez être

Hek " daitezke (ditezbe) = ils peuvent être

33. IZAN Indicatif Imparfait

Ni mintzen = j'étais = nintzau

Hi mintzen = tu étais = haintzau

Zu zinen => vous étiez = -->

Hura zen => il était = -->

Gru ginen => nous étions = -->

Zuek zmeyzen => vous étiez = -->

Hek ziren => ils étaient = -->

y = j → zake = jehe (mots)

z = u → zuen = zuen (verbos) ditien = detuvan etc.